

## eguzki

Erantzun ekologiko bat krisi ekonomikorako? izeneko jardunaldia

Datorren urtarrilaren 23an, larunbatean, Gasteizko Aldabe Gizarte-Etxean, 10:00etatik 14:00ak arte “Erantzun ekologiko bat krisi ekonomikorako” izeneko jardunaldia burutuko dugu.

Eguzki denuncia el uso de la crisis para ayudar a unos, y las subidas a los usuarios del tren.

Eguzki denuncia la subvención en la compra de un coche y, sin embargo, seguir aprobando año tras año subidas en el precio del billete del autobús o del tranv&iacu

EGUZKI se extraña de la discusión competencial sobre el biotipo protegido de Deba-Zumaia, y destapa las carencias de su protección

No se entiende la discusión sobre aspectos competenciales mientras, a consecuencia del abandono y maltrato de nuestra costa, poseemos el ámbito litoral con menor régimen de protec

MOMPAS:Un nuevo incumplimiento de las promesas y ni rastro de las alegaciones

Desde Eguzki queremos llamar la atención sobre el último episodio de plazo incumplido en torno a la pasarela de Mompás. Está claro que el capricho del Alcalde por construir

Portadako albiste gehiago >>

Kopenhagek porrot egin ala ez, batzuk beti irabazle [2010/01/15]

COKE EZ. Cadena humana rodeando Petrorror [2010/01/15]

## Historia

Euskadiko Batzorde Antinuklear eta Ekologistetan, eztabaida-prozesu bat abiatu zen, Lemoizko zentral nuklearra behin-behinean geldiarazi ondoren, 1982ko maiatzean. Eztabaida hark ekarri zuen emaitzagarriak, mugimenduaren beraren bilakaeragarriak eta gure lurraldean arazo berriak sortu izanagarriak (NATOn eta EEEn sartzea, bide-proiektuak, instalazio kutsatzaile berriak...), beste era batera elkartu eta lehentasun-eskala bat eratu beharra ikusi zen.

Batzorde Antinuklearretan gaia adostu orduko, Ekologistak Elkartzeko Batzarrerako deialdi irekia egin zen, eta Altsasun egin zen biltzarra, 1987ko otsailaren 21ean. Han eman zitzaion hasiera Eguzki sortzeko prozesuari, eta, Orion egindako Esku-hartze Jardunaldien ostean, azkenik, urte hartakoxe ekainaren 27 eta 28an osatu zen, Iruñean. Euskal Herriko 60 batzorde eta talde inguru batu ziren: ingurumenaren alorrekoak, ekologistak eta antinuklearrak. Xedea erakunde berri bat sustatzea izan zen: “bildu eta koordinatuko gaituen erakunde berri bat: lan gehiago eta hobea egiten lagunduko diguna, gure lurra arriskuan jartzen duten proiektuen aurka, eta Euskadi askeago, burujabeago eta ekologikoago baten alde”.

Esku hartzeko lau arlo nagusi zehaztu ziren:

- 1) Gure ingurumen naturala babestea,
- 2) Arrisku nuklearrak eta energiaren politika,
- 3) Bizitzeko hiri eta kale egokien aldekoa,
- 4) NATOren eta Euskadiko militarizazioaren aurkakoa.

Eguzki, orduan, talde ekologista gisa azaldu zen: irekia (ekologia-arazoaren aurka, erroztik, zergatiak aztertuz, indarrak batu nahi dituzten pertsona eta taldeei), autonomoa (erakunde eta alderdietatik askea, bere baitan joera politiko desberdineko pertsonak onartzuz) eta engaiatua (ingurumenari egindako zeinahi eraso mota salatzen orduan).

Garai hartan aurrera eramandako lana handia izan zen oso: batere erdeinagarriak ez diren militantzia eta aktibismo mailen emaitza. Euskal gizartean ekologia-arazoak ezagutaraztea erdietsi zen, eta ingurumenaren gaiarekiko sentikortasuna handiagotzen joatea. Poluzioa, gure erreka eta ibaien egoera edo hondakinen kudeaketa salatzen jarraitzen izan ziren, besteak beste, arian-arian egikaritu diren aurrerakuntzen oinarri; halako jarraitzen alderdien eta erakundearen programetan sartzean gertatu dira aurrerapauso horiek. Horren guztiaren adierazgarri ona da birziklatzeko politikari dagokion oro.

Ekologiaren arloan jardun dugun 20 urte hauetan zehar, hainbat koordinakunderen jaiotzearen lekuko izan gara: biztanle-talde zabalei eragiten zieten arazoari aurre egiteko sortu izan dira (Sakanako autobiarri, ezkerreko superportuari, Leitzarango autobiarri edo Itoizko urtegiari). Horietako askotan, Eguzki, batere erdeinagarria ez den funtzioa bete izan du, sortzean berean lagunduz, gure egoitzak eskainiz, lanerako dugun gaitasuna beraien zerbitzura jarritz... Aldi haren interpretazioak bi aurpegi oso desberdin ditu: alde batetik, hainbat gizataldetan ekologiaren aldeko borroka ezagutaraztea eta mobilizazio maila handiak lortu baziren, bestetik, taldeari ekarri zion kostua biziki handia izan zen. Izan ere, erreferente sozialtzat finkatu zen, eta arrazoibide landuago eta orokorragoa falta izan zen, enpresei, alderdiei eta erakundeiei aurre egiteko, haiek ingurumenaren gaineko diskurtsoaren zenbait atalen jabe egin eta horietaz gero eta gehiago baliatzen hasi zirenean; beraien xede bakarra, azken finean, Eguzki hedatzeko eta egoera berriei hasiera emateko zeukan ahalmena neutralizatzea zen.

Aro hartan, nagusi zen garapen-ereduak kezkatzen zituen gizarteko sektoreen artean adostasun zabala behar zela ondorioztatu zen Eguzkin, eta eztabaida zabalagoa eragin behar zela, alternatiba orokorrak mahaigaineratuko zituen arrazoibidea lantzeari zegokionean mugimendu ekologista erreferentzialtasuna galtzen ari zelako uste osoz. Testuinguru horretan, 1994an, Euskal Ekosistemaren Garapen Demokratikorako Etorkizuneko Gizarte-hitzarmena aurkeztu genien, gure herriko alderdi sozial aurrerakoiei.

Proposamen haren abiapuntua uste sendo bat izan zen: “gure herriko gizarte-mugimenduek irmotasunez erakutsi zutela egiazko aukera zegoela proiektu kaltegarriak oztopatu eta are geldiarazteko ere. Hala eta guztiz ere, gero eta nabarmenagoa da ez dela posible, jada, egoerari aurre egitea, baterako ikuskerarik gabe eta gizarte-hitzarmen batek sor dezakeen loturak lan-ildoak batu ezean”. Zentzu horretan, sektoreak bildu eta indarrak batzeko deia egin zen, Euskal Herriarentzat kualitatiboki bestelakoa izango zen garapena ahalbidetzeari begira: nagusi zen eredu sozial eta produktiboa inposatzen ari zitzaiguna ez bezalakoa.

Gizarte-hitzarmen haren oinarriak demokrazia eta eskualdeko bioaniztasuna berreskuratzearen ingurukoak ziren, eta ekoizpenaren arloari zuzen-zuzenean zegozkion hainbat proposamen jaso zen bertan: hala nola, gizartearen esku dagoen lana birbanatzea; lehen sektoreari laguntzea, desagertzen ari den landa-mundua babesteko; kulturaren esparrua ezinbestez engaiatu beharra, inkontziente kolektiboaren ahalmena piztu eta burujabetzera zuzentzeko.

Gizarte-sektoreak garapen-eredu alternatibo baten alde biltzeko ildo horretatik beretik, onuragarria deritzogu, halaber, 2000. urteko Lurraren Eguna zela bide, Lurra Deialdia sortu izanari. Johannesburgh-eko Goi Bileran Lurraren aldeko Elkarrizketa aurkeztu izanak, gure iritziz, elkartzeko eta eztabaidatzeko gune aberasgarria ireki zuen, gure babesa eta parte-hartzea merezi duena. Hainbat esparrutan diharduten gizarte-erakundeek –ekologia, lehen sektorea, osasuna, kontsumoa, sindikalismoa edo nazio arteko elkartasuna– modu sinergikoan elkarrekin lan egitea, gure aburuz, muzin egin ezin zaion apustua da.

Ingurumenaren aldeko borroketan gero eta maizago agertzen den osagai batek –“ondorioak jasaten dituenaren moralak” deritzogunak edo “bai, baina nire lorategian ez” ezagunak– eztabaida beste maila batean antolatzea garrantzitsua da, eredu kapitalistaren irrazionaltasun eta jasangaiztasunarenera; eta, gizarteari, egingarriak ez ezik, presazkoak eta premiazkoak begitanduko zaizkion alternatibak eratu beharra dagoela erakusten digu.

Bide horretan, euskal mugimendu ekologistak proposatzen den apustuaren jakitun izan behar du, bai eta apustu horri heltzeko aurrez aurre izango dituen antolamendu mailako erronka berrien jakile ere. Borroka batzuk irabazi dira, ez gatoz esku-hutsik, baina zinez uste dugu euskal mugimendu ekologista gerra galtzen ari dela: jasangarritasunaren inguruan zabalduko erretorika gu erailtzen ari dela, balizko arrakasta baten ameskeriaz baliatuz. Izan ere, zenbat eta gehiago mintzatu ingurumenaz, zenbat eta itun eta arautegi gehiago onetsi, okerrago dago gure lurraren eta planetaren osasuna.

## **Nortasun-ezaugarriak**

Euskal Mugimendu Ekologistak, lehenengo eta behin, Mugimendu izan behar du: kezka berberak dituzten hainbat gizarte-sektoreen bilgune, taldeen sigla eta interesen gaindik; Ekologista: gizartearen eta naturaren arteko erlazioaren mundu-ikuskeratik, eta ekoizpen-erlazioarenetik, “orokorrean pentsatu, tokian tokikoan jardun” lelotik abiatuz, bere oinarrien eduki soziala azalera dezan; eta Euskal-herriarra, Euskal Herria ekosistema kulturala dela aldarrikatuko duena, eta,

herriak eta kulturak uniformizatzeko egungo prozesuan agertzen zaizkigun erronkei, erantzun desberdinak emateko gaitasuna duela.

Aurre egin behar zaie nagusi den garapen-ereduan nabarmentzen diren balioei, euskarriak ondoko hauek baitituzte: produktibismoa, patriarkalismoa (hierarkizazio bertikala, boterea eta nagusitasuna gurtzea), natura menderatzean oinarrituriko aurrerabidearen ideologia eta teknokrazia (materia eta natura mesprezatzen dituen pentsamoldeari dagokiona, eta mugarik gabe ustiatzeko objektu bilakatzen dituenarena), eta elkertasunik ezaren indibidualismoa, jabetza-kontzeptuari hertsiki lotua. Horretarako, gure herriko hainbat esparrutan ageri diren balioen potentzialtasun neurrigabea baliatu behar da, eta euskal mugimendu ekologistari berezko nortasun ezaugarriak eman.

Eguzkin, XXI. mendeko euskal mugimendu ekologistaren nortasun-ezaugarrien artean hauek egon beharko luketela uste dugu:

1) **Identitarioa**: bere lurrian sustraitua, Euskal Herrian jarduten duena, bere izaera eta idiosinkrasia dituen herria; beste mugimendu batzuekin batean borrokan jarduten duena, kultura gorde eta euskara guztion hizkuntza bilakatzeko; ukatu ezin den hatsapen demokratiko gisa, autodeterminazioaren eskubidea erabiltzearen aldeko jarrera duena.

2) **Kolektibista**: subjektu kolektiboa berreskuratu eta mobilizatzea, lehentasunezko xede gisa azaltzen den indibidualismo murriztailearen aurrean. Izan ere, pertsona bakar batek deusezta dezake baso bat, baina komunitate batek soilik zain dezake; Kolektiboak denaren balioa da edozein planteamendu ekologistaren giltzarria.

3) **Antikapitalista**: sistema kapitalista harrapari unibertsal gisa agertu da, eta garapen-eredu jasanezin baten gainean eraiki ditu oinarriak. Sistema hori Euskal Herriari arras atxikirik dagoen ezaugarria dela onartu arren, eta kalte egiten dion oro geure zauria balitz bezala sentitu, bateraezinak iruditzen zaizkigu sistema kapitalista mantentzea eta planeta mailako bizitza babestea nahiz gure herriarentzako garapen-eredu demokratikoa lortzea; gaur egungo globalizazio ekonomikoaren prozesuaren aurkakoa, pentsamendu bakarraren aurkakoa eta uniformizazio kulturalaren aurkakoa.

4) **Solidarioa**: planetako herri guztiekin, bereziki, elkartruke ekologiko desorekatua egiten den herriekin; ekosistemako gure aztarna murrizteko konpromisoa hartuko duena; “kanpo zorra” ezabatzearen alde egiten duena, geure zor historikoa onartuz, eta planeta mailako gutxieneko ongizate estandarra ezartzearen aldekoa.

5) **Politikoa**: boterea nola kontrolatu eta erabakiak maila horizontalean nola hartu ulertzeko modu berezia izango duena; baliabide naturalen administratzaile gisa botere politikoak duen papera eta estatuaren funtzioa bere erara ulertuko dituen; baina hauteskundeetako estrategietatik urrun geratuko dena.

6) **Herrikoia**: Euskal Herriko emakume eta gizon guztiei irekia, beraien sinesmena edo jarduera profesionala gorabehera; herri-mugimenduaren nortasun-ezaugarriak aldarrikatzen dituen, profesionalizazioaren aurka eta ingurumena kudeatzeko bulego bihurtzeko arriskutik aldenduz.

7) **Egituratzaila eta bateratzailea**: euskal gizartea egituratzea lortu nahi duena, herrietan eta auzoetan zuzeneko parte-hartzea izanez, geure historiaren egile izan gaitzen eta ez ikusle pasibo; gizarte-sektore aurrerakoiak bateratzeko bokazioa duena, ikuspegi ekologikotik egungo garapen-eredua onartu ez eta erabat bestelakoaren alde egiten dutenena.

8) **Aldarrikatzailea**: ezarritako status quoaren sirena-kantuetatik aldenduko den borrokarako

mugimendua; eguneroko lanean ekologiaren aldeko bidezko borroka ororekin engaiatua; herriaren kontzientziazioaren eta mobilizazioaren bitartez aldarrikapenak egiteari uko egiten ez diona.

9) **Burujabea**: alderdi politikoez, erakundeekiko, enpresekiko eta presio-taldeekiko inpendentea; zuzeneko edo zeharkako loturarik gabea, besterenak diren estrategiek makurraraziko eta erabiliko ez dutena.

## Diagnostikoa

Pentsamendu bakarrak, egun, Euskal Herrian, izena eta ikurra dauzka: Euskal Hiria. Kontzeptu horren pean ezkututzen den proiektuak aurrez aurre egiten du topo, ez soilik edozein planteamendu ekologistarekin, baizik eta baita bere nortasun-ezaugarriak izango lituzkeen Euskal Herriaren alde egitearekin ere. Ikuspegia, hiri handi batena da, lurraldeak elkarri lotzeko lurra bere zerbitzura jarri eta sakrifikatzen duen hiriarena; eta jarraibidea, garraioari loturiko azpiegitura mota oro ugaritzea (AHT, Eibar-Gasteiz autopista, Pirinioetan zeharreko autobia, Donostialdeko ondoz ondoko ingurabideak, hainbat pasabide eta Bilbo Handiko Supersur...).

Nazionalismo burgesak bat egiten du neoliberalismo espainiarraren kontzepzio teknokratiko akulturalarekin, Hego Euskal Herrirako ondoko oinarri hauen gainean eraikitako proiektuaren alde egitean: lurraldea metropolizatzea; nazio artean ezarrita dagoen lan-banaketa zehatz-mehatz errespetatzea; euskal nazioarena dena lurralde Transakitanoan desintegratzea, Atlantikoko Ardatzaren atal gisa; eta endogenoa dena erabiltzea, bertakoa kapitala nazioarteratzeko beharrari egokitzeko bide gisa.

Gatazka nazionalari eta burujabetzaren aldarrikapenari loturiko erretorikaz at, praktikak erakutsi digu nola, Hego Euskal Herrian, bata bestearen ondotik etorri diren lurraldekako gobernuek (UPN, EAJ, EA, CDN, PSOE, IU), garapen-ereduari dagokionez, politika beraren alde egiten duten. Une hauetan, garapen-ereduaren inguruan, funtsezko adostasun politiko bat badagoela baieztatu dezakegu, eta egoera horrek oso modu nabarmenean eragiten dio euskal gizarteari, gizarte-ehundura deseginez. Begiratzera geroz eta gehiago mugatu eta geroz eta gutxiago parte har dezagun nahi da, biztanleriaren ongizate gero eta handiagoaren izenean; joera horrek publikoa dena alde batera uztea eragiten du, eta hori arriskutsua da benetan. Euskal herria herri izateari utzi eta gizarte bilakatzen ari da, egunez egun: desegituratzeko prozesuan sartua den gizarte hedonista.

Zinez uste dugu lurraldearekin harremanetan izateko era baten, eremu hori interpretatzeko eredu baten, ekosistemako atal sentitzeko molde baten... labur esanda, bizitzeko modu baten azken hatsak aditzen ari garela. Kolpez kolpe (burdinolak, ontzigitza, industria-iraultza, hirugarren sektorea nagusitzea, metropolizazioa), aztarna ezabaezina uzten ari gara, lurrean, eta bertan bizi garenon kontzientzian. Eguzkikook hausnartzeko deia egiten ari gara, bidean geldialdixoa egin eta gogoeta egiteko gonbitea: ea ekonomiaren indar itsuek, merkatuaren legeek, globalizazioaren manamenduek... joan gura dugun lekura ote garamatzaten pentsatzekoa.

Merkataritzaren Mundu mailako Erakundearen hitzarmenak nagusi diren esparruan, eta enpresa transnazionalak lehen mailako agente ekonomiko gisa nagusi direnean, lurraldeen arteko lehiak naturari erasaten dio, eta eragina handia izaten da, gizartean eta ingurumenean. Motordun ibilgailuak etengabe gehitzea, energia-kontsumo jasanezina, ekosisteman gure aztarnak areagotzea, lurraldea gero eta gehiago urbanizatzea, eta, ondorioz, landa-eremuen eta hirien arteko mugak lausotzea, uniformizazio kulturala edo lekuan lekuko nortasunaren gaineko eragina: dagokien larritasun mailaren arabera neurtu beharreko ondorioak dira.

Urbanismo berria kapital publikoz eginiko inbertsio itzeletan oinarritzen da; kapital hori

hirigunearen gestio enpresarialaz arduratzen diren enpresa mistoek kudeatzen dute, eta finantza lokalen krisia eragiten dute, metropoli-barruti horiek funtzionatzeak sorrarazten dituen gastuen gorakadagatik. Funtsean, hirien garapena nazio arteko kapitalaren erabakiak maila lokalean errazteko tresna bilakatzean datza, haren eskura jarriz garraiorako azpiegiturak, telekomunikazioa eta lurzoru sail izugarriak salgai-hondarren prezioan.

Bizilekuaren eta lantokiaren arteko distantzia handitzea; garraio publikoaren erabilerak behera egitea, eremu "nekazal-hiritarretan" eraginkortasuna gutxitzean; topalekua herriko plaza izatetik merkatalgune handia izatera igarotzea; lotarako auzoak agertzea; auzokoen arteko harremanak desagertzea eta gizarte-ehundura elkarkorra murriztea; edo baliabideen kontsumoa eta hondakinen sorrera areagotzea: jasangaiztasunaren elementuak dira, lurraldea metropolizatzeko prozesuari datxezkionak. Plangintza estrategikoen gaitza den defizit demokratikoa, bai sortzen direnean, eta bai, gerora, metropoli-barrutiak kudeatzeko orduan ere, oztopo izaten da, eta haustura sozialaren tankera hartzen du, urruntzearena eta gizarte-gaiekiko eta gobernatzeko ezintasunagatikiko interesik ezarena.

Hirien eta lurraldeen jasangarritasunaren aldeko politika, aitzitik; hiritarren parte-hartzean oinarritu behar da; eragotzi egin behar du hiria zatikatzea; bizileku-dentsitate handiak ezarri behar ditu, eta sare trinkoak, garraio publiko eraginkorarentzat nahiz hurbileko gizarte-ekipamenduentzat mesedegarri izan daitezten; eremuen funtzioaniztasuna bultzatu behar du, hiriko bizitzaren elementu dinamizatzailerik gisa; gainbeheran dauden guneak birgaitzeko eta suspertzeko politika ezarri behar du; diskriminazio positiboa bultzatuz jokatu behar du, eta garraio publikoen alde egin, bide bereziak sortuz; automobil pribaturik ez erabiltzea sustatu behar du, eta aparkalekuak murriztu.

Pentsamendu bakarra, "zenbat eta gehiago, hobe" dioen zibilizazioa gertu dago, lehiakortasunaren aldarean oparirik baliotsuena, urriena eta berreskurazina sakrifikatzeko: lurraldea. Lurralde bihotzekoa eta bizitakoa, historia duena, nortasun-ezaugarriak dituen, bioaniztasun natural eta kultural aberatsa duena, eta potentzialtasun endogenoak. Ez agindutako lur helduezin eta ezin besarkatuzkoa: fluxuen espazioarena, denbora telematikoki ezeztatzearena, determinismo ekonomizistaz mozorrotutako oihan liberalarena. Habitata aukeren esparru bihurtzea hegazti harraparietarako etxea eraikitzea da: bizitzaren mausoleo ikaragarri bat altxatzea, loratuko diren bakarrak espekulatzaileak, politiko oportunistak eta hirigile diru-goseak izateko.

Globalizazioaren aroak –mundializazio finantzarioarenak– bizkortu egiten ditu orain arte ezkutuan egondako prozesuak. Esate baterako: kapitalaren mesedetan orain arte bere logikaz at egoniko ekoizpen-baldintzen jabe eginez balioa sortu eta metatzeko modu berriak; geostrategiarako politiken garrantzi gero eta handiagoa, hiri-sareak eratuz edo dena justifikatzeko balio duen totem berri bat agerraraziz, desfokalizazioa, lurraldea lehiakor bilakatzera behartzen duena.

Mezua noranzko bakarrekoa da: beharrezkoa da hazkunde-garai berri bat, krisi ekonomikoa, langabezia, miseria... gainditzeko; ezibestekoa da guztiok "zenbat eta gehiago, hobe" leloa geure egitea eta hazkundeak ez daukala mugarik onartzea, arazoa ez dela zer ekoitzi eta nola batzen den araberakoa; geure egin behar dugu "gehiago, handiagoa, bizkorragoa" besterik esaten ez dakienaren diskurtso obsesibo, setati eta larderiatsua.

Horrela, garrantzi berezia hartzen du kontsumoarekin eta bizimodu berriekin loturiko guztiak. Gaur egungo egoeran, ekoizpenaren gorakadak atzetik dakarrena begi-bistakoa da: eragiten dituen deusezpenen hazkunde handiagoa. Sortzen duen kostua eskaintzen dituen abantailen gaintetik dago. Kontsumo maila bizi-kalitatea hondatzen ari da: okerrago bizi gara gehiago kontsumituta, eta, bien bitartean, beste batzuek gutxienez iritsi ezinean dabilta; hazkundeen paradoxa da: asetzen duena baino eskasia handiagoa sortzen du. Gainera, mundu inperialistak sorrarazi duen bizimodua planeta osora inoiz hedatu ezingo den eredua da.

Gutxiengo pribilegiatu batentzat diseinaturiko "gure" bizimodua orokortu ezinezkoa dela adierazten duen ezaugarria da iritsi berriek lortu nahi izaten duten unetik krisian sartzea, mendebaldeko gizartean arrazakeria eta xenofobia eraginez. Ez dago nahikoa baliabide mineral, mundu osoak ekoizteko eta kontsumitzeko daukagun modu harraparia har dezan.

"Hazkundearen drogazaleei", gutxiago gozatzeko garestiago ordaintzeko prest dauden horiei, azaldu egin behar diegu eta praktikan frogatu, hobeto bizitzeko bide bakarra, gutxiago ekoiztea dela, gutxiago kontsumitzea, lan gutxiago egitea eta denok lan egitea, beste era arduratsuago batean bizitzea, autogestioan oinarrituago, kontzienteago. Aldatu egin behar da ekoizten dena, ekoizteko modua, beharren definizioa, beharrak asetzeko moldea... laburbilduz, ekoizteko modua eta bizimodua.

Hazkundera mitoaren mailara altxatu da: berez da ona, eta, hortaz, kritikaren bahean igaro beharrik ez duenaren kategoria hartu du. Erabateko balioa izan behar du, eta haren gainean oinarritu behar dira bizitzaren alor guztietara hedatuko diren merkataritza-harremanak; eta balio zenbakarria eduki behar du, industriaren eta bankuen monopolioaren kontrolpean egon ahal izateko.

Pobreziaren zibilizazioa eraiki da, zarrastelkeriaren artean, erabili eta bota egiten duen zibilizazioa; eta, horrela, kalitate eskaseko salgaizko metak hondakinezko meta bilakatzea da oparotasunaren adierazle. Lehengaietan pobrea den gure Euskal Herrian, eta energia lortzeko besteren menpe dagoen herrian, beharra dohain bihurtu eta "gutxiagorekin gehiago egin" daitekeela erakutsi behar dugu: posible dela, alegia, eta presazkoa, guztiontzako zorientasun handiagoa erdiestea, ugaritasun gutxiagorekin.

Eguzkikook kirol-portuen edo golf-zelaiei aurka agertzen garenean, edo gure nekazal-gune apurrak sakabanaturiko hirigune bilakatzeari aurre egiten diogunean, ez gara ari natura babesten soilik; funtsezkoa dugunaren jabetza pribatua hedatzearen kontra ere bagaude: ura, lurra. Gure herriaren egungo egoeran, espazioaren etengabeko kapitalizazio-prozesua gerarazteko ari gara borrokan. Izan ere, daraman erritmoari eutsiz gero, erabat ezinezkoa izango da, etorkizuneko ezein proiektu alternatibo justizia sozialaren eta oreka ekologikoaren irizpideen gainean eraikitzea.

## **Borroka ideologikoa**

Urteetan, ingurumenaren gaineko informazio-iturri nagusia, euskal gizartearentzat, euskal mugimendu ekologista izan da; gaur egun, egoera aldatu egin da zeharo, iturriak ugaritu direnean. Erakundeek, enpresek eta hedabideek ekologiaren esparrura sartzea erabaki dute, kanpaina mediatiko bat diseinatu; jomuga –eta neurri handi batean lortzen ari direna– ekologisten mezua ezereztea da. Gainera, gizartearen eta ekologiaren krisian daukaten erantzukizuna aitortu beharrean, propaganda eta kultura antiekologikoa hedatzeko bitartekoak sortzen dituzte, “marketing berdea” baliatuz.

Garapen jasangarriaren diskurtso hutsal eta pozoituaren aurrean, borroka ideologikoaren lana, ekologisten borrokan beste fronte bat eratuz, premiazkoa da, hizkera bereizgarri bat eratzeko orduan, burujabetzera bidean. Ekologismo sozialaren ikuspegitik, "garapen jasangarriaren" diskurtso liberalaren xedea ez da natura babestea, kapitala baizik. Beharrezkoa da, bada, estrategia produktibo alternatiboak antolatzea, kapital ekologikoak eta diskurtso eko eta neo-liberalek lortu nahi duen naturaren definizio berriari aurre egiteko.

Jarduteko eran aldaketa bat nabarmentzen da: kapitalismoa gero eta gehiago berregituratzen da "ekoizpen-baldintza" deiturikoen kontura. Ekoizpen-baldintzak zera dira: salgaiak balira bezala

erabilitako elementuak, horrela sortuak izan ez arren (hau da, balioaren eta merkatuaren legearen arabera ekoitzia izan ez arren). Lan-indarra, natura, hirigunea, etab. ekoizpen-baldintzak dira, zentzu horretan. Beraz, egungo prozesua ekoizpen-baldintzen etengabeko kapitalizazio gisa ikus daiteke.

Ekoizpen-baldintzak andeatu eta suntsitzean (euri azidoa, ura gazitzea, metaketa eta poluzioa, lindanoak pozoituriko lurzorua... horrek guztiak kapitalari kostuak ekartzen dizkiolarik), gertaera horiei aurre egin behar zaie, irabaziei eusteko. Hori egiteko hartzen diren neurriak, besteak beste, hauek dira: aldaketa teknologikoa bizkortzea, lehengaiak merkatzea, eta lan-indarrari diziplina handiagoa eta soldata txikiagoak ezartzea. Jukutria horiek gero eta lankidetzara eta bitartekaritza handiagoa eskatzen diote administrazio publikoari, eta argiago ikusten da, ekoizpen-prozesuen izaera sozial eta politikoa, itxura batean neutroak eta onak diren politiken eduki soziala bistaratzean.

Herri-mugimenduek aldi berean egin behar diote aurre, bioaniztasuna, gorputza, espazioa eta natura deusezteari eta kapitalalak berak ekologian sorturiko krisiak eragindako baldintza horiek berregituratzeari.

Kapitala modalitate berri bati ekiten ari da, "ekologiaren aroa" izenda dezakegun honetan. Natura ez da, jada, ikusten edonola ustia daitekeen kanpoko errealitate gisa; natura, orain, balio-iturritzat hartzen da, berez. Kapitalaren dinamika nagusiaren forma aldatu egin da: kanpoko errealitate batean oinarrituriko metatze eta hazkundetik bere baitan itxiriko natura kapitalizatuaren sistema mantendu eta autokudeatzera. Natura kapitalizatzeko prozesu berri horrek berekin dakar lehen kapitalizatu gabeko alderdiak, orain, kapitalaren barneko bilakatzea.

Bioaniztasunaren diskurtsoan, natura ez da hartzen, hainbeste, beste prozesu batzuetan erabiltzeko lehengai gisa, baizik eta berezko balio-erreserba legez; balio hori, jakina, kapitalaren esku utzi behar da, ezaguera zientifikoaren eta bioteknologiaren bitartez. Guzti-guztia, geneak barne, erortzen da, ekoizpenaren, ikuspuntu ekonomikoaren eta balioaren legearen kodearen diktadurapean.

Natura babesteko sortu den ingurumenaren gaineko legeria Damoklesen ezpata bilakatu da; horren aurka, mugimendu ekologistatik, zilegitasunaren indarrez egin behar diogu aurre, lau urtean behin eskuordeturiko demokrazia diskurtso lineal eta murriztaileari. Ziklo naturalak aldarrikatu behar ditugu, eta, habitatean atzerazinak diren aldaketak eragingo dituzten jardueri ekiteko, bidezkotasun plusa. Ekologiaren krisiak agerian uzten du iraganeko eta etorkizuneko belaunaldiekin denboran zeharreko lotura mantendu beharra; oinordetzan hartutakoa eta utziko duguna errespetatzeak mugatu egiten du belaunaldi jakin bakoitzak erabakitzeke izan dezakeen erabakitzeke ahalmena.

Euskal Herria, etnonazio gisa, ez daiteke oraina bakarrik izan; iragana eta geroa ere bada. Horrela, ustezko kontraesana, ekologistek demokrazian sakontzeko egindako eskariaren eta etorkizuneko belaunaldien interesak gogoan izateko beharrezko artetako, konponduta geratzen da, itun sozial batera iritsiz, zilegitasun-iturri berri batekin agertzen denaren bermearekin, parlamentuko besaulki-trukean lortutako gehiengo eskasetatik haratako.

Ekologiston mugimenduan, borroka ideologikoaren frontea bermeren batekin sortzeko, mezu argi, irmo eta ahalbait bateratuenaz hornitu beharra daukagu: ingurumenaren arazoaren erroa joko duen mezua, zergatietara zuzenduko dena, eta "hoditeriaren muturreko" irtenbideak aztertzea mugatuko ez dena. Ezin gaitezke gelditu arazoaren azaletik harantz joango ez diren eztabaida faltsuetan: ihes egin behar zaie irudikeriei eta "gaurko ogia biharko gosia" diren distrazioei, eztabaida konponbideak aurki daitezkeen toki bakarrean antolatzeke.

Bide horretan, beharrezkoa eta presazkoa dela ikusten dugu adierazpenak egiteko geure bitartekoak

edukitzea: are gehiago, hedabide publikoen jokaera lotsagarria ezagututa, eta komunikabide pribatu gehien-gehienek beraien akziodunen interesei egiten dietela ohore jakinda. Informazio-sare zaluak (eta kontrainformaziorakoak), erlazio-gune finkoak, eztabaidarako eskualdekako foro irekiak... hori guztia, kaleetako pankartak eta aktibismoa baztertu gabe.

Egia estaltzeko bestetarako ez dela agertu den jasangarritasunaren diskurtsoaren aurrean, benetan lortu nahi dena jasanezina jasangarri bilakatzea baita, premiazkoa da ekologisten borrokaren garrantzi estrategikoa eta naturaren aldeko itun sozial handi baten potentzialtasuna aldarrikatzea. Itun hori estrategiak batzeko eta egiaztatzeko elementua izango litzateke: euskal habitata berreskuratzea ahalbidetuko luketen baldintza sozialak sorrarazteko estrategiak, hain zuzen ere.

## **Non gaude**

### **Araba**

Aiztogileen kalea 50 behea  
01001 Gasteiz  
Telefonoak: 945250147 / 656790800 / 656790106  
e-mail: eguzki@eguzki.org

### **Bizkaia**

Ronda kalea, 22 1go ezkerria  
48005 Bilbo  
Telefonoa: 944163204  
e-mail: bizkaia@eguzki.org

### **Gipuzkoa**

Iñigo kalea 8 Behea  
20003 Donostia  
Telefonoa: 943430628  
e-mail: gipuzkoa@eguzki.org

### **Nafarroa**

Mendigorria kalea 12 Behea  
31015 Iruñea  
Telefonoa: 948231083  
e-mail: nafarroa@eguzki.org

## **Dokumentu biltegia**

ERAUSKETA

GAROÑA zentral nuklearra

HIRIGINTZA

Besteak

Dokumentu guztiak

## **Irudien bilduma**

Lurra Eguna: Hirigintza Basatia

Mendi Martxa: Pirinioak sustatu, ez saldu

Besteak

Irudi guztiak

## **Argitalpenak**

Argitalpen guztiak

DENAK

URTEKARIA 06

2006. urtean zehar agertutako berri garrantzitsuenen laburpena. Eraikuntza nazionaletik zementazio osora.

RANASUTRA

51 era Euskal Herria izorratzeko

INGURUMEN GATAZKETARAKO KONPONBIDEAK

Gladys del Estal XXV urtemuga

ERANDIO KUTSADURAK ODOLA EDAN DIO

25 años después, de nuevo en el ojo del huracán

EH BERDE ETA GORRIA

Lehiakortasunaren eta modernitatearen izenean milaka urteko euskal Herria Euskal Hiria ari da bihurtzen...

URTEKARIA 05

2005

2005. urtean zehar agertutako berri garrantzitsuenen laburpena. 365 arrazoi borrokan jarraitzeko.

HIRIGINTZA BASATIA ETA ESPEKULAZIOAGATIK KALTETUTAKO HERRIEN  
ASANBALADA

Aspaldidanik gure herriak bizitzarako espazioak izateari utzi eta espekulaziorako orubeak bilakatzen ari dira...

## **Prentsa oharra**

Sabino eta Alberto atxiloten aurrean [2007-12-01]

Eguzki Urgulleko zuhaitz mozketaren salatzen du (cas.) [2007-09-26]

Eguzki comparte la decisión de Medio Ambiente del G.V. de proteger Monpas [2007-08-18]

Bizikleta martxa errausgailuaren aurka [2007-07-14]

La depuradora de Donostia también es de 2ª división [2007-06-29]

28 aniversario de la muerte de Gladys [2007-06-01]

Azken urte ilunei errepassoa [2007-05-24]

Algunos partidos "olvidan" la incineradora en elecciones [2007-05-19]

Prosiguen las talas en Donostia. Eguzki denuncia las de Basozabal y Aiete [2007-05-14]

Sobre el proceso de elección de ubicaciones [2007-05-08]

Antxoa gabatxari boikot, itsasoa salba dezagun [2007-04-25]

Protesta de Eguzki contra la incineradora [2007-02-08]

Eguzki denuncia el insuficiente presupuesto [2007-01-08]

Eguzki denuncia vertidos en las obras de la Eibar-Gasteiz [2006-09-11]

Eguzki propone promocionar el vermicompostaje [2006-04-11]

Por un año sin coches y un día sin hipócritas [2005-09-22]